


KRONIKA

# Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben inguruko formakuntza



Nagore Goñi Arana eta  
Maite Leturia Nabarroa

Arkitektoak eta  
Abaraskako kideak

Jasotze data: 2019-12-15

Onartze data: 2020-01-15

\*\*\*\*\*

Aurreko abenduaren hasieran Bartzelonan izan ginen La Dinamo fundazioak eskainitako erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboak bultzatzeko formazioan. Euskal Herrian eredu honen inguruan lanean gabiltzan edota eredu hau oinarri hartuta gure lurraldean proiektuak martxan jartzen ari garen taldeen espedizioa antolatu zuten Koopfabrikako lagunek, lurralde katalanean jada egin duten eta egiten ari diren bidetik ikasteko.

**La Dinamoren ereduak: jabego kolektiboa, errepikakortasuna, irabazi-asmorik gabekoa, zerbitzu-emailea**

Katalunian honelako proiektuak aurrera eramateko asmoa honako indar nagusien bateratzeetik sortu da: batetik, hipoteken merkatura sartzeko ahalmenik ez duen jendearen aukera faltagatik, alokairuen burbuilaren aurreikuspenaren aurrean eta jabetzarik izan nahi ez duen jendearen alternatiba-bilaketatik, eta, bestetik, gero eta bakartiagoa den gizarte honetan espazio komunitarioak sortzeko, elkar zaindu dezagun. Hori dela-eta, hainbat lurraldetako bizitoki-ereduak aztertu zituzten, hala nola Danimarkako Andel eta Uruguaiako FUCKAM, non erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben ereduak jada hainbat hamarkadarako ibilbidea duen.

La Dinamo fundazioak Bartzelonako La Bordan dagoeneko gauzatu den proiektua eredu errepikakor bihurtzea du helburu. Hau da, jabetza komunitarioa duen eta erabiltzaile komunitatearen parte ahaldun den proiektuak sortzea da bere xedea. Beraz, orain arte ezagutu ditugun etxebizitza-kooperatibekin alderatuz, eredu guztiz ezberdin bat bihurtzen duten aldaketak planteatzen ditu, nagusiki jabegoa

kooperatibaren esku uztea eta bizilagunak etxebizitzaren erabiltzaile izatea. Hau da, jabetza inolaz ere ez da zatigarria izango eta etxebizitza erabilerarako zerbitzu bat izango da, transakzio merkantilen bitartez hobari ekonomikoak lortzeko bide izan beharrean. Azken finean, etxebizitza merkatu librearen eta espekulazioaren logikatik kanpo egotea abiapuntutzat duen ereduak sustatzea du helburu.

Horregatik, erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba irabazi-asmorik gabekoa da, bere helburua lehen mailako beharrak asebetetzea izanik. Etxebizitza, gainera, hainbat zerbitzuren multzo bezala ulertuta, non eremu pertsonala garatzeko espazioaz gain, beste mota bateko zerbitzuak ere elkarbanatzen diren: baliabide energetikoak, telekomunikazioak, komunitatearentzako espazioak... Bartzelonako Sants auzoan eraiki berri den La Bordako kasuak orain arte teorikoki garatutakoa berresten du, gainera: norbanakotik hauek lortzeko bidea egin ordez, baliabideak elkarbanatuz kalitate handiagoko espazio eta zerbitzuak sortzeko gai garena; energia-efizientzia handiagoko eraikinak, lurzoru eraikigarriaren gaineko aprobeitxamendu handiagoa, espazio komunitarioen bitartez ohiko etxeetan topatzen ez ditugun zerbitzuak eskainiz...

Ereduaren errepikakortasuna bermatzeko, aldiz, politika publikoetan eragina izatea ezinbestekoa da. Etxebizitzarako sarbidea gizartearen espektro ahalik eta zabalenera eskaintzea ahalbideratzen duen ereduak izan nahi du, non eragile publiko eta pribatuen arteko kolaborazioa ezinbestekoa den. Horregatik, esaterako, La Borda proiektua, BOE lur baten 75 urtetarako azalera-lagapen baten bidez gauzatu da. Baina, bertarako sarbidea errazteko eta ahalik eta sozialena izan dadin, instituzioek ereduak onartzea eta ahalbideratzea



Irudiak - Euskal Herritik Bartzelonara joandako taldeak La Dinamoko formakuntza-saio batean. Egilea - Koopfabrika.

ezinbestekoa da. Horretarako (Europako zein Europaz kanpoko) herrialde askotan aurrera eramaten diren politikak har ditzakete eredu gisa: lur-erreserbak eginez (Hanburgo eta Danimarkan egiten den bezala), finantzazio sozialak sustatuz (Uruguai, Berlin, Hanburgo, Quebec, Viena...) edota eredu honen aipaturiko berezitasunak barne hartzen dituen marko juridiko bat sortuz eta laguntza tekniko emanaz (Uruguai FUCAM, Britainia Handiko Community-led Housing Hubs edo Alemaniako Stattbau).

### **Eta Euskal Herrian... zer?**

Dena dela, eredia egingarria da. Bartzelonan La Bordaz gain beste hainbat adibide daude: Princesa, La Diversa, La Morada, Cirererts Florits, Llars Jove, La Xarxaire, La Balma... eta baita Bartzelonaz gain Kataluniako lurraldean ere: Cal Cases, La Raval, La Tartana, La Titaranya, La Serreta, Walden XXI, Envall... eta Zaragozan, Balearretan. Bertako instituzioek egungo etxebizitza-krisiaren aurrean soluzio erreal bezala ulertu eta haien elkarkidetzaren bidez ari dira lurralde horietan etxebizitza sozialaren alternatiba berri bat sortzen. Euskal Herrian ere honelako proiektuak aurrera eramane nahi dituzten hainbat eragile daude: Abaraska eta Elkarbidean proiektuak Donostian, Ametxe eta Egunsentia Bizkaian, Etxekoopon eta Txinalka Araban eta Etxekonak, Karakola Etxea, Etxekide, Heldu, Bizikabi, Irazarra eta Arterra Nafarroan.

Eragile bakoitzaren egoera ezberdina da. Eragile batzuek lur pribatu bat eskuratu dute eta proiektua sustatzeko prest daude; beste talde batzuk beren bizitzako azken garairako elkarbizitza-ereduaren bila dabiltza, hau da, ondarea izan dezakete proiektuaren sustapenari ekiteko, baina, lurrik ez. Eta, beste askok ez lurrik ez eta ondarrerik. Baina, lehen aipatu bezala, bizitoki eskuragarria eta ereduaren errepikakortasuna bermatzeko lur publikoan eramane nahi dira aurrera proiektu gehienak, eta, horretarako, zenbait udalekin harremanetan daude proiektu ezberdinak. Iruñeko

Udalan, esaterako, zahartzaroa erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba batean bizi ahal izateko arkitektura-lehiaketa bat sustatzekotan daude.

Donostiako Txomin-enean, aldiz, Eusko Jaurlaritzaren orube baterako erabilera-lagapeneko kooperatiba bat aukeratzeko lehiaketa burutu zen. Baina, ez dauka arestian aipatu dugun ereduarekin zer ikusirik. Lehiaketa horren bidez bultzatu zen eredia kooperatiba etxebizitzaren kudeatzaile hutsa izatea litzateke, bitartekari soil bat alegia, zeinak jardun horrengatik etekina aterako duen eta, ez, irabazi-asmorik gabe, bizitokia izateko sarbidea erraztu, elkarbizitza bultzatu eta eredia errepikatzeko bildu den gizatalde ahaldunduek sortutako kooperatiba bat.

Beraz, Bartzelonako LaDinamok, eta Euskal Herriko zenbait eragilek sustatzen dugun proiektuaren oinarria ulertzea ezinbestekoa da, orain arte egin denetik ezberdindu ahal izateko. Hau da, eredu honen funtsa, batetik, erabilera-lagapenak ahalbideratzen duen jabetza kolektiboaren izaeran, eta, bestetik, interdependentzian (elkarbizitzan eta elkarren zaintzan) datza. Hori bermatzeko ezinbestekoa da talde eragile baten ekimena. Eta, era berean, bizitzeko era honek eraldatuko du ingurua eta bizitokiaren arkitektura.

\*\*\*